Sin./Fdo.: ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA - 2025-08-25
INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-09-11
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00086/2025 - Data/Fecha: 2025-09-11
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-09-11
GZko 16.gaia onartuta - Aprobado, asunto 16) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak basafaunak eragindako kalteetatik hobeto babesteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena eta 2025. urterako deialdia egiten duena.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se establecen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para mejorar la protección de las explotaciones agrícolas y ganaderas frente a daños provocados por la fauna silvestre y se realiza la convocatoria en el año 2025.

| | |
|---|---|
| ONURADUNAK<br>PERSONAS BENEFICIARIAS | Titulares de explotaciones agrícolas y/o ganaderas.<br>Nekazaritza- eta/edo abeltzaintza-ustiategien titularrak |
| DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK<br>ACTUACIONES SUBVENCIONABLES | Adquisición de vallados portátiles, pastores eléctricos y medios para mantenimiento perros mastines.<br>Hesi eramangarriak, artzain elektrikoak, eta mastin arrazako txakurrak mantentzeko baliabideak. |
| AURREKONTU-ZUZKIDURA<br>DOTACIÓN PRESUPUESTARIA | 170.000 € |
| DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA<br>REGIMEN DE CONCESIÓN | Norgehiagoka<br>Concurrencia competitiva |
| ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA<br>PLAZO SOLICITUDES | 15 egun baliodun BAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita<br>15 días hábiles desde el día siguiente a la publicación en el BOB |
| HARREMENETARAKO:<br>CONTACTO: | servicio.ganaderia@bizkaia.eus |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak garrantzi handiko ekoizpen-modua dira Bizkaiko Lurralde Historikoan, bai ekonomiari dagokionez, bai gizarteari dagokionez, eta, gainera, funtsezko tresna da natura-guneak kudeatzeko eta kontserbatzeko.

Las explotaciones agrícolas y ganaderas representan una forma de producción de gran importancia en el TH de Bizkaia tanto en términos económicos como sociales y constituye, además, una herramienta fundamental para la gestión y conservación de los espacios naturales.

Hala ere, abereen eta ugaritzen ari den basafaunaren arteko elkarreragin handiaren ondorioz istripuak izateko arriskuak baldintzatzen du lehen mailako ekoizpena. Esaterako, laboreetan eta bazka-azaleretan kalteak eragiten dituzten animali basatiak eta harrapakari naturalak ditugu, hala nola otsoa (Canis lupus, gure Lurralde Historikoan gero eta ohikoagoa dena), bai eta abereengan eta/edo haien kumeengan kalteak eragin ditzaketen beste espezie batzuk ere, putrea eta azeria, besteak beste.

Sin embargo, la producción primaria se ve condicionada por el riesgo de accidentes derivados de una fuerte interacción del ganado con la fauna silvestre cuyas poblaciones van en aumento. Este es el caso de especies silvestres que provocan daños en cultivos y superficies forrajeras, así como de depredadores naturales como el lobo (Canis lupus) cuya presencia en nuestro Territorio Histórico es cada vez más frecuente, así como de otras, como el buitre y el zorro, que pueden llegar a provocar daños en el ganado y/o sus crías.

Era berean, basafauna animalien gaixotasun askoren (horietako asko zoonosikoak) gordailu garrantzitsutzat har daiteke, eta, beraz, abereekin kontaktuan egotea arrisku larria izan daiteke gure ustiategien osasun-estatuserako, baita osasun publikorako ere.

Asimismo, la fauna silvestre puede ser considerada como un importante reservorio de muchas enfermedades animales, muchas de ellas zoonósicas, por lo que su interacción con la cabaña ganadera puede suponer un grave riesgo para el status sanitario de nuestras explotaciones e incluso para la salud pública.

2022/2472 (EB) Erregelamenduak, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta landa-eremuetako zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituenak, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz, 14.6.i artikuluan, laguntza % 100era arteko intentsitatearekin aurreikusten ditu animalia babestuek nekazaritza-ekoizpen primarioari lotutako nekazaritza-ustiategietan eragindako kalteak prebenitzeko eta murrizteko prebentzio-ekintzekin zerikusia duten inbertsioetarako laguntzak ( 14.14.b).

El Reglamento (UE) 2022/2472 por las que se declaran determinadas categorías de ayudas en los sectores agrícola y forestal y en zonas rurales compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del tratado de funcionamiento de la Unión Europea en su artículo 14.6.i, contempla las ayudas a las inversiones relacionadas con acciones preventivas para la prevención y la reducción de los daños causados por animales protegidos en explotaciones agrícolas vinculadas a la producción agrícola primaria con una intensidad de la ayuda de hasta el 100% (art. 14.14.b) .

Hori guztia dela-eta, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiek aparteko neurriak hartu behar dituzte beren laboreak eta artaldeak babesteko, fauna-espezie jakin batzuen presentzia eta haien ekoizpen-sistema bateragarri egite aldera. Administrazio publikoek neurri horiek sustatu

Todo esto hace necesario que las explotaciones agrícolas y ganaderas adopten medidas extraordinarias de protección de sus cultivos y rebaños que permitan compatibilizar la presencia de ciertas especies de fauna con su sistema de producción, medidas que las administraciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

behar dituzte beste batzuekin batera, nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenean eta ekosistemetan kalterik ez jasotzeko.

públicas han de fomentar junto a otras para evitar afecciones sobre la producción agrícola-ganadera y sobre los ecosistemas.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/79 Lege Organikoak Euskal Herriaren eskumen esklusiboa nekazaritza eta abeltzaintza direla ezartzen du, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera. Era berean, EAEko erakunde erkideen eta foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak foru-organoei esleitzen die animalien ekoizpen eta osasunaren arloko eskumen esklusiboa. bai eta Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 96., 97. eta 98 artikuluetan ezarritakoaren babesean ere, arlo horretako sustapen neurriei eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza administrazio eskudunek, bereziki Bizkaiko Foru Aldundiak, laguntzok kudeatzeko dituzten eskumenei dagokienez.

La Ley orgánica 3/79 de 18 de diciembre por el que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País vasco establece como competencia exclusiva del País Vasco la agricultura y ganadería de acuerdo con la ordenación general de la economía. Asimismo, la Ley 27/1983 de 25 de noviembre de relaciones entre las instituciones comunes de la CAV y los Órganos Forales atribuye a los órganos forales la competencia exclusiva en materia de producción y sanidad animal, así como de lo dispuesto en los artículos 96,97 y 98 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria relativa a las Medidas de Fomento en esta materia y a las facultades de las Administraciones Agrarias Vascas competentes, en particular la Diputación Foral de Bizkaia, para la gestión de estas ayudas.

79/2022 Foru Dekretuak, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa onartzen duenak, Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiari esleitzen dizkio osasunaren eta animalien ekoizpenaren arloko eskumenak, bai eta azpiegiturak eta landa-garapena sustatzea ere.

El DF 79/2022 por el que aprueba la estructura orgánica del Departamento de Medio Natural y Agricultura asigna a su Dirección General de Agricultura las competencias en materia de sanidad y producción animal, así como el fomento de infraestructuras y desarrollo rural.

Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 8. eta 21. artikuluetan eta haiekin bat datozenetan xedatutakoa betez, foru dekretu honen helburua da deialdi honen ondoriozko konpromiso guztiei aurre egiteko diru-izendapen espezifikoa eta nahikoa egitea aurrekontuetan.

Por otra parte, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 8, 21 y concordantes con la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, es objeto del presente Decreto Foral efectuar la reserva de consignación presupuestaria específica y suficiente para hacer frente a los compromisos que se deriven de esta convocatoria.

Gainera, foru dekretu hau prestatzeko orduan kontuan hartu dira genero-desberdintasunak desagerrarazteko berdintasun-plana eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, laguntzak generoaren arabera emateko lehentasunak ezarrita.

Asimismo, en la elaboración de este Decreto Foral se ha tenido en cuenta el Plan de Igualdad de género para la eliminación de desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres estableciéndose prioridades para la concesión de las ayudas en función del género.

Foru dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen

El presente Decreto Foral incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, testu bategina onartzen duena ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Legearen testu bateginean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, izapidean, foru dekretu horren 2. oinarrian aipatzen den txostena sartu da, hau da, "Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa".

Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género" al que hace referencia la base número 2 del citado Decreto Foral.

Foru Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituena.

En la elaboración del presente Decreto Foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación de Bizkaia.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021 de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Era berean, foru dekretu hau egitean, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete dira: generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena, kontrol ekonomikokoa eta dagozkion txosten juridikoak eta legalitatezkoak eman dira.

Igualmente, en la elaboración y tramitación del presente Decreto Foral se han seguido los trámites marcados en el citado Decreto Foral 87/2021 de la Diputación Foral de Bizkaia, emitiéndose los preceptivos informes de Evaluación Previa de Impacto de Género, de Control Económico, jurídicos y de legalidad correspondientes.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. 1. 4 eta 17. 2 artikuluen arabera, xedapen hori onartzeko eskumena

En relación con la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17. 1.º 4 y 17. 2.º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, ésta corresponde al

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio.

Ondorioz, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.- *Basafaunak eragindako kalteen aurrean nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien babesa hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia onartzea.*

Basafaunak eragindako kalteen aurrean nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien babesa hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira. Hona hemen horien testua:

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo azken xedapena. *Arauen garapena.*

Baimena ematen zaio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuari, foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta ezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarren azken xedapena. *Indarrean jartzea.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Ahaldun Nagusia
La Diputada General

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Medio Natural y Agricultura, y previa deliberación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia

DISPONGO

Artículo Único. - *Aprobación de las bases y convocatoria de ayudas para el fomento de medidas de protección en las explotaciones agrícolas y ganaderas frente a ataques y daños provocados por la fauna silvestre.*

Se aprueban las bases reguladoras de ayudas y convocatoria destinadas a la concesión de subvenciones para el fomento de medidas de protección de las explotaciones agrícola-ganaderas frente a ataques y daños provocados por la fauna silvestre cuyo texto se incluye a continuación.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera. *Desarrollo normativo.*

Se autoriza a la Diputada de Medio Natural y Agricultura para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrara en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Ingurune Naturala eta nekazaritza sustatzeko foru diputatua
La Diputada de Medio Natural y Agricultura

ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BASAFAUNAK ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-USTIATEGIEN BABESA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

AURKIBIDEA


I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Dirulaguntzaren xedea.
2. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.
3. Pertsona eta erakunde onuradunak.
4. Elkarreragingarritasuna.
5. Datu pertsonalak babestea.
6. Aplikatzekoa den araudia.

II. KAPITULUA. XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

7. Emateko prozedura.

8. Emakida irizpideak.

9. Ebazpena. Prozedura agintzeko organo eskuduna.

10. Aldi berean beste dirulaguntza batzuk jasotzea.

11. Dirulaguntza aldatzea.

12. Egikaritze-epea.

13. Dirulaguntzari uko egitea.

14. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

15. Betebeharrak.

16. Onuradunak dirulaguntza borondatez itzultzea.

17. Dirulaguntzaren zergatia. Epeak

18. Ez-betetzea eta itzulketa.

19. Arau-hausteak eta zehapenak.

20. Emandako dirulaguntzen publizitatea.


BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA MEJORAR LA PROTECCIÓN DE LAS EXPLOTACIONES AGRÍCOLAS Y GANADERAS FRENTE A DAÑOS PROVOCADOS POR LA FAUNA SILVESTRE.

INDICE


CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

1. Objeto de la subvención.
2. Actuaciones y gastos subvencionables.
3. Personas o entidades beneficiarias.
4. Interoperabilidad.
5. Protección de datos de carácter personal.
6. Normativa aplicable.

CAPITULO II. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS

7. Procedimiento de concesión.

8. Criterios de concesión.

9. Resolución. Órgano competente para la instrucción del procedimiento.

10. Compatibilidad con otras subvenciones.

11. Modificación de la subvención.

12. Plazo de ejecución.

13. Renuncia a la subvención concedida.

14. Cuantía y abono de la subvención concedida.

15. Obligaciones.

16. Devolución voluntaria a iniciativa de la beneficiara de la subvención.

17. Justificación de la subvención. Plazos

18. Incumplimiento y Reintegro.

19. Infracciones y sanciones.

20. Publicidad de las subvenciones concedidas.


Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

III. KAPITULUA. DEIALDIA

21. Eskaerak.
22. Epea eta aurkezteko tokia.
23. Eman beharreko dokumentazioa.
24. Eskaera zuzendu edo hobetzea.
25. Aurrekontu esleipena.

CAPITULO III. CONVOCATORIA

21. Solicitudes.
22. Plazo y lugar de presentación.
23. Documentación necesaria a aportar.
24.Subsanación o mejora de la solicitud.
25. Consignación presupuestaria.

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Foru dekretu honen xedea da dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzea eta deialdia egitea, norgehiagoka-erregimenean, abereak, laboreak, bazka-lursailak edo abereak babesteko neurriak sustatzeko, basafaunak eragindako eraso eta kalteen aurrean.

Base 1. *Objeto de la subvención.*

Es objeto del presente Decreto Foral el establecimiento de las bases y la convocatoria para la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para el fomento de medidas de protección de ganado y protección de cultivos, parcelas forrajeras o cabaña ganadera frente a ataques y daños provocados por la fauna silvestre.

Diru-laguntzen programa honen babesaren pean egiten diren proiektu guztiek genero-ikuspegia jaso behar dute, eta ezin dute bereizkeria dakarren osagairik erabili, ez hizkuntzaren erabileran, ez irudietan.

Todos aquellos proyectos realizados al amparo de este programa de ayudas incorporarán la perspectiva de género, no contemplando elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen.

2. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak. Eta gastuak.*

Diruz lagundu ahal izango dira foru dekretu honen 21. oinarriaren babesean eskabidea egin eta hurrengo egunetik urriaren 15era arte egindako jarduera hauek:

a) Abereentzako hesi eramangarriak erostea. Hesi eramangarriak diruz lagundu ahal izateko, ezinbestekoa izango da, gainera, artzain elektrikoa erostea edo eskatzaileak hori duela egiaztatzea.

b) Laboreak, bazka-lursailak edo abeltzaintza-etxola babesteko artzain elektrikoak erostea.

c) Txakur mastinak mantentzea: Otsoek ganadua erasotzen duten udalerrietako abeltzaintza-ustiategiei lotutako mastinak elikatzeko pentsua, eta/edo aziendaren aurkako erasoak 2024. urtean

Base 2. *Actuaciones y gastos subvencionables.*

Serán subvencionables las siguientes actuaciones, realizadas desde el día siguiente a la fecha de solicitud realizada al amparo de la base 21 del presente Decreto Foral hasta el 15 de octubre:

a) La adquisición de vallados portátiles para el ganado. Los vallados portátiles sólo serán susceptibles de subvención si además se adquiere pastor eléctrico o si la persona solicitante está en posesión de este.

b) La adquisición de pastores eléctricos para la protección de cultivos, parcelas forrajeras o cabaña ganadera.

c) Mantenimiento de perros mastines: Pienso para alimentación de mastines vinculados a explotaciones ganaderas ubicadas en municipios donde se hayan producido ataques de lobo al

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta/edo Dekretu hau argitaratu arte gertatu diren mendietan larreak aprobetxatzeko eskubideak dituzten ustiategiak elikatzeko pentsua.

3. Oinarria. *Onuradunak*

Apartatu honetan arautAutako laguntzen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, juridikoak eta ondasun-erkidegoak baldin eta ondoren zehaztutako baldintzak betetzen badituzte:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Ofizialean inskribatutako nekazaritza-ustiategi baten titularra izatea.

b) Pertsona fisikoen kasuan, balizko onuradunak 18 urte beteta izatea eskabidea aurkezteko unean.

c) Onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere. Egoera hori eskabidea aurkeztean egiaztatu beharko da, eta laguntza ematen den unean, obligazioaren aitorpenean eta ordainketan mantendu beharko da. Titularkidetasunen kasuan, titularkidetasuna osatzen duten pertsona guztiei dagokie egiaztapen hori egitea.

d) Onuradunak ezin dira egon zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zigortuta, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta ere. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera, sexua dela-eta inor baztertzeagatik gertatutakoak ere sartzen dira debeku horietan. Hori guztia eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik bete behar dute.

e) Ezingo dira dirulaguntzaren onuradun izan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak edo erakundeak.

f) Era berean, ezin izango dira onuradun izan:

ganado y/o explotaciones con derechos de aprovechamiento de pastos en montes donde se hayan producido ataques al ganado durante el año 2024 y/o hasta el momento de la publicación de este Decreto Foral.

Base 3. *Personas o entidades beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente apartado tanto las personas físicas, jurídicas y comunidades de bienes que cumplan los requisitos especificados a continuación:

a) Ser titular de Explotación Agraria inscrita en el Registro Oficial de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) En el caso de personas físicas, la posible persona beneficiaria deberá tener cumplidos 18 años en el momento de presentar la solicitud.

c) Las personas beneficiarias deberán estar al corriente en sus obligaciones tributarias, así como con la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá acreditarse con la presentación de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago. En el caso de cotitularidades, esta acreditación corresponde a todas las personas que forman parte de la cotitularidad.

d) Las personas o entidades beneficiarias, deberán no encontrarse sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se hallarán incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, antes de la finalización del plazo de solicitud.

e) No podrán ser beneficiarias de la subvención las personas o entidades que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

f) Asimismo, no podrán ser beneficiarias:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Krisian dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluaren 18. apartatuan ezarritako definizioaren arabera. Erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira EBFTren 107. eta 108. artikuluak aplikatuta.

2. Laguntza bat legez kontrakotzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden enpresak.

1º. Las empresas en crisis, según la definición establecida en el apartado 18 del artículo 2 del Reglamento (UE) nº 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del TFUE.

2º. Las empresas que estén sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado interior.

4. oinarria. *Elkarreragingarritasuna.*

Bizkaiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden laguntza horien administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuei buruz, baldin eta eskatzaileek berariaz aurka egiten ez badute. Kasu horretan, eskatutako ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Sailak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eska ditzake, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 6.e) artikuluari lotuta.

Base 4. *Interoperabilidad.*

El Departamento de Medio Natural Y Agricultura mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, a través de los servicios de interoperabilidad, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas solicitantes requeridos para la tramitación administrativa de estas ayudas que obren en poder de la Administración, siempre que no exista una oposición expresa por parte de las personas solicitantes, en cuyo caso deberán aportar los certificados y documentos requeridos. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Departamento podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación, todo ello según los términos previsto del artículo 28.2 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común, en relación al artículo 6.e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Era berean, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak Foru Dekretu honetan jasotako inguruabarrak egiaztatzeko beharrezko diren jarduketak egin ahal izango ditu Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 lege organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Asimismo, el Departamento de Medio Natural y Agricultura podrá realizar las verificaciones necesarias de las circunstancias contempladas en el presente Decreto Foral, en base a lo establecido en la Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica de Protección de Datos (LO 3/2018).

5. oinarria. *Datu orokorrak babesa.*

Base 5. *Protección de datos de carácter general.*

Interesdunak emandako datuak foru dekretutik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira,

Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; horren bidez, indargabetu egiten da 95/46/EE Zuzentaraua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Europako araudia egokitzen eta osatzen du) aurreikusitakoaren arabera.

se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

Ukitutako pertsonak baimenik ematen ez badu, edo lehen adierazitako araudian aurreikusitako kasurik ematen ez bada, datuak ez zaizkie inola ere hirugarrenei lagako.

En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

Administrazio publikoek datu pertsonalak adierazteko eskainitako edozein bide erabiliz egiten direnean eskabideak, organo hartzaileak, bere eskumenak erabiliz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Era berean, eskubidea du erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan, eta informazio hori zabaldu egin daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión («derecho al olvido»), limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

6. oinarria. *Aplikatzekoa den araudia.*

Base 6. *Normativa aplicable.*

Dekretu honetan aurrez ikusitako dirulaguntzek honako hauek dituzte arau: foru-dekretu hau berau,

Las subvenciones previstas en este Decreto se regirán por lo establecido en el mismo, en el



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Batzordearen 2022/2472 Erregelamendua, 2022ko abenduaren 14koa, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta landa-eremuetako zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarri deklaratzen dituena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz eta eskabideak ebazteko foru-aginduak.

Reglamento 2022/2472 de la Comisión de 14 de diciembre de 2022 por el que se declaran determinadas categorías de ayuda en los sectores agrícola y forestal y en zonas rurales compatibles con el mercado interior, en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea y en las Ordenes Forales de resolución de las solicitudes.

Laguntza-erregimenak, laguntza-erregimenen arabera emandako banakako laguntzak eta ad hoc laguntzak bateragarriak izango dira barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. artikuluko 2. edo 3. paragrafoen arabera, eta Tratatuaren 108. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako jakinarazpen-betebeharretik salbuetsita geratuko dira, baldin eta laguntza horiek 2472/2022 (EB) Erregelamenduaren I. kapituluan ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, bai eta 2472/2022 (EB) Erregelamenduaren III. kapituluan dagokion kategoriari aplika dakizkiokeen baldintza espezifikoak ere.

Los regímenes de ayudas, las ayudas individuales concedidas con arreglo a regímenes de ayudas y las ayudas ad hoc serán compatibles con el mercado interior a tenor del artículo 107, apartados 2 o 3, del Tratado, y quedarán exentos de la obligación de notificación establecida en el artículo 108, apartado 3, del Tratado, siempre que dichas ayudas cumplan todas las condiciones establecidas en el capítulo I del Reglamento (UE) 2472/2022, así como las condiciones específicas aplicables a la categoría pertinente establecidas en el capítulo III del Reglamento (UE) 2472/2022.

Estatu kideek 2472/2022 (EB) Erregelamenduari jarraiki salbuetsitako laguntza-neurri bakoitzari buruzko informazio laburtua helaraziko diote Batzordeari, Batzordearen jakinarazpen elektronikoko sistemaren bidez, Erregelamendu horren II. eranskinean ezarritako formatu normalizatuan, laguntza-neurriaren testu osoa, aldaketak barne, eskuratzeko esteka batekin batera, neurria indarrean sartzen denetik hogei egun balioduneko epean.

Los Estados miembros transmitirán a la Comisión a través del sistema de notificación electrónica de la Comisión, información resumida sobre cada medida de ayuda exenta en virtud del Reglamento (UE) 2472/2022 en el formato normalizado establecido en el anexo II del mismo, junto con un enlace que permita acceder al texto completo de la medida de ayuda, incluidas sus modificaciones, en un plazo de veinte días hábiles a partir de su entrada en vigor.

Arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretua, Foru Administrazioak emandako Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua aldatzen duena (Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen

Será de aplicación lo establecido en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Régimen Jurídico General de Subvenciones; el Decreto Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, que modifica el Reglamento de Subvenciones, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia; el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: HWCO-FWXG-8CZL-KTET
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Erregelamendu Orokorra onartzen duena; Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren 1305/2015 Foru Agindua, ekainaren 18koa, dirulaguntzak eta dirulaguntza publikoak ematearen arloko gastua fiskalizatzeko prozedura onartzen duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko araudia; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren eremuan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, bai eta aplikatu beharreko beste edozein xedapen ere.

Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia; en la Orden Foral del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas 1305/2015, de 18 de junio, por el que se aprueba el procedimiento para fiscalización del gasto en materia de concesión de subvenciones, y subvenciones públicas, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su normativa de desarrollo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público de las Administraciones Públicas, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica; el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Halaber, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere aplikatuko da, bai subsidiarioki edo ordezko gisa aplikatzekoa den gainerako araudia ere..

Asimismo, también será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

Eskabideak argitaratzean jasotako datuak honako hauetan xedatutakoaren arabera argitaratuko dira: 1306/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 17koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, Nekazaritza Politika Bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, 111. artikulua, eta 908/2014 (EB) Betearazpen Erregelamendua, Batzordearena, 2014ko abuztuaren 6koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena erakunde ordaintzaileei eta beste organismo batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, kontrolei, bermeei eta gardentasunari buruzko arauei dagokienez. Datuak autonomia-erkidegoetako, estatuko edo Europar Batasuneko ikuskaritza- eta ikerketa-erakundeek tratatu ahal izango dituzte, finantza-interesak babesteko.

